


Intxaurrondo



Donatoren tertulia Lauaizetan

Joan den astean Xaguxarren autobusa Martuteneko Lauaizeta ikastolara heldu zen. Martxoaren 2ra arte bertako ikasleek liburutegi ibiltari horretako liburuekin gozatzeko aukera izango dute.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak "Xaguxarrak: Donatoren tertulia" egitasmoa jarri du martxan. Egitasmoa EAeko ikastetxeetako

Ipuinaren ordua

Hilaren 23an Larrotxene kultur etxean, "Gauza handi eta txikiak" izeneko ipuina entzuteko aukera izango da Ipuinaren Ordua saioan. Hilaren 26an, berriz, Intxaurrondo Berrin "Ipuin zaharrenak" izeneko entzun ahal izango dute bertaratutako haurrek. Saiook arratsaldeko 16.00etan egingo dira.

12 eta 16 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago eta irakurzaletasuna sustatu eta bultzatzea du xede. Ikasleek irakurtzeko materialeak eskura izan dezaten nahi da, modu eroso eta erakargarrian. Batik bat euskarazko literatura bultzatu nahi da.

Ekimena bideratzeko autobusa egokitu da. Autobusaren barrualdean liburutegi bat, hamar bat ordenadore eta hainbat telebista monitore daude. Hauei esker, ikasleek literaturagintzara hurbiltzeko parada dute, bai liburu bidez, eta baita autobusan bertan antolatzen diren jardueren bidez ere. Horrez gain, nahi izanez gero, haurrek bertako liburuak maileguan har ditzakete. Hainbat begirale arduratzen da saioak dinamizatzeaz eta antolatutako jarduerak guztiak euskara hutsez egiten dira.

«Xaguxarrak: Donatoren tertulia» izeneko proiektuak irakurzaletasuna bultzatu nahi du

Ikastetxez ikastetxe

Proiektua martxan jarri zenetik autobusa EAEn ikastetxez ikastetxe dabil eta orain-

goan Donostiako hainbat ikastetxeren txanda izan da, tartean Lauaizeta ikastolarena, hain zuzen.

Lauaizetako ikasleek harri-duraz hartu zuten liburutegi ibiltari honen etorrera. Hala ere, egunotan gustura asko ibili ziren autobus berezi horren sekretuak ezagutzuz.

Haurrak ez dira, ordea, proiektu honen protagonista bakarrak, ikastolako irakasleentzat ere hainbat ekimen bideratu baitira.

"Irakasleentzat hainbat formakuntza saio antolatu dira. Gure asmoa irakasleak irakurmenak heziketan duen garrantziaz jabetzea da, irakasleak baitira haurren eta liburuaren arteko bitartekari nagusiak", adierazi digu Maria Eugenia Lauaizeta ikastolako zuzendariak.

CASA BARTOLO



Gure berezitasuna haragi eta arrainak parrilan

Fermin Calbeton kalea 38
Tel.: (943) 42 17 43
20003 DONOSTIA